



LABORATORIUM




GURE NAHIA

Ez dugu nahi *Laboratorium* soil-soilik erakus-keta bat izatea. Bergaran murgildutako eragile gisa ikusi nahi dugu, bertako jardura sozial, ekonomiko eta kulturalaren barnean, herritar helduentzako zientzia-programak sortzen, lantegi didaktikoak eratzen, udaleku zientifikoak garatzen, ikasleekin loturak ezartzen, eta baita Bergarako hirigune historikoa eta natura ezagutzeko bisitaldiak edo txangoak antolatzen ere.



Irailaren 17tik ekainaren 30era



Uztailaren 1etik irailaren 16ra

Ixita: Urtarrilak 1 eta 6, Pentekoste jaiak, Irailak 16 eta abenduak 24, 25 eta 31
laboratorium@bergara.eus / 943 769 003

Hegazkinez:

Gertuen dagoen aireportua Bilbokoa da, Loiu.

Miarritzekoa 75 minutura dago.

Autoz:

Kostaldetik, Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik (40 min): A8 - AP1 autopistak.

Iruñetik: A10, A1 eta GI/632 autobideak.

Gipuzkoa barnealdetik: Tolosa - Beasain - Bergara.

Autobusez:

Pesa - Lurraldebus
www.pesa.net




LABORATORIUM
BERGARA



HISTORIA HARRIGARRIA

Bergarak gordeta duen historia harrigarria da. Bergarako Errege Seminarioak, krisi-garaiak gainditzeko, berrikuntza-ren aldeko apustua egin zuen heziketaren eta ikerketa zientifikoaren bidez. Ikasketa praktikoei eta bilduma zientifikoek goi-goia jo zuten Wolframa aurkitzean.




ARDATZ NAGUSIA, BERRIKUNTZA

Bergaran, etengabeko taupada bat antzematen da; berrikuntza taupada. Aspalditik dator; ilustraziotik behintzat bai; izan ere, garai hartan, toki batetik bestera ziztu bizian joan nahi genuen, mezuak berehala bidali nahi genituen, espezie ezberdinak aurkitu, mundua argiztatu. Eta oraindik ere, berrikuntza da gizakien bizimodu baldintzak hobetu ditzakeen tresna giltzarria.



ESPERIENTZIA BEREZIA

Bisitaldia lorategian hasten da; kontinente ezberdinetako espezie botanikoak ditu. Errekalde jauregian, Peñaflo-ridako kondea bizi izan zen tokian, XVIII. mendera arte bidaiatuko dugu. Elhuyar anaiak ezagutu eta wolframa aurkitzen lagunduko diegu; taula pe-riodikoaren elementuak atzama-rretan hartuko ditugu; anima-lia bitxiak ezagutuko ditugu, Ozeania, Asia zein Amerikakoak.



BILDUMA HUNKIGARRIA

Museoko bildumak bihotza ukituko dizu, aurkikuntza-aren ilusioa gertutik bizi izanaren gogorapena gordetzen baitu. Bilduma aparta da, paregabea, bakarra, bai erakunde sortzaileak izandako garrantziagatik, bai bildumaren antzinatasunagatik, bai gordetzen dituen aparteko ale bereziengatik. Fondoak dituen 3.000 aleetatik, pieza batzuk bakarrik daude erakusgai; baina gaur egun guzti-guztiei dute arte-lanen pareko balioa.

